



**Legorretako
Udala**

LGTBI+ KOMUNITATEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Legorretako Udalaren adierazpena, udalbatzak ekainaren 24ko osoko bilkuran onartua

52 urte igaro dira Stonewallen lesbiana, gay, transexual eta, batez ere, trabestiak Poliziak eragindako jazarpenaren eta xantaiaren aurka erreboltatu zirenetik: data hori mugari bihurtu zen LGTBI pertsonen borrokan. Hamar urte geroago, 1979ko ekainaren 10ean, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Errenteriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 horretan LGTBI pertsonak eta kolektiboek Euskal Herriko kaleak hartu zituzten estreinako aldiz, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzea aldarrikatzeko. Stonewalleko gertakariez geroztik, ekainaren 28an LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Eguna ospatzen da: borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere: eskubide berberak dituen jende askearen gizartea izateko, sexu-desioaren orientazioagatik edo genero identitateagatik bereizkeriarik sortu gabe.

Urtebete baino gehiago igaro da pandemiak herritarren bizitzak gogor astindu zituenetik. LGTBI pertsonen aurkako diskriminazio handiagoa ekarri du konfinamenduak; haien eskubideak, bermatu beharrean, urratu egin dira, zaugarritasun bereziko testuinguru batean. Are gehiago, gaur egun krisi sozioekonomiko larria ate-joka denean, gorroto-diskurtsoak eta erasoak areagotzen ari dira, eta LGTBI pertsona askoren bizi-baldintza orokorrak prekarizatzen eta okertzen ari dira, batez ere bereziki zaugarriak diren kolektiboenak, hala nola trans pertsonak, egoera administratibo irregularrean daudenak, arrazializatuak eta beste. Bereziki kezagarria da trans pertsonen aurkako gorroto-diskurtsoen goera. Pandemiak agerian utzi du eskubideetan egindako aurrerapenak, kolektiboen eta ekintzaileen urteetako borroka neketsuari esker lortu direnak, hauskorrak direla, eta oso erraza dela horiek galtzea eta atzera egitea. Orain, osasun-krisitik ateratzen ari garenean, "normaltasun" desiragarria itzultzearen diskurtsoak gailentzen ari dira:

mendeko egoeran daudenentzat, bazterretan daudenentzat, ordea, baztertuta bizitzen jarraitzea esan nahi du normaltasun horrek, beren eskubideez gozatu gabe edo dituztenak galduta. Krisi honetan, inoiz baino gehiago konprometitu behar dugu, konpromisorik gabeko adierazpen hutsak baztertuz. Erakundeok pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta bereziki zaindu behar dugu LGTBI bezalako kolektibo zaurgarriek eskubide horiek izan ditzaten. Aitzakiarik gabe, politika eraldatzaileak bermatu behar ditugu, gure udalerrri eta herrialdeetako LGTBI pertsonen beharrei eraginkortasunez erantzuteko.

Adierazpenetatik harago, udalaren konpromisoa politika zehatzetan islatu behar da. Horren isla da aurten martxan jarritako diagnostikoa: herri honek orain arte ez ditu izan LGBT+ pertsonen begirako politika espezifiko edo zeharkakoak, eta, hain justu, hori aldatzeko abiatu da prozesu hau. Diagnostiko hau lehen pausoa da LGBT+ herritarren eskubideak bermatuko diren agertoki batera iristeko. Eta bertan ateratzen diren plan edo ekintzek bilkura honen babesa izango dute.

Legorretako Udalak herritarrei dei egiten die, beraz, erakundeek, LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak gure herri eta hirietan deitutako sentsibilizazio- eta aldarrikapen-ekitaldiekin bat egin dezaten, foro publikoek, hedabideek eta sare sozialek agerian utz dezaten gaur aniztasunaren aldeko borroka-eguna dela.

Legorretan, 2021eko ekainaren 28an